

➔ ASKO DUGU JOKOAN

Sentsibilizazioak, prestakuntzak, prebentzioak, detekzioak eta jokoarekin lotutako arrisku-egoeren tratamenduak gizarte hobe bateranzko aurrerapausoak ematen laguntzen digu.

➔ ZER EGIN DEZAKEGU?



Hainbat proposamen prebentzioa hobetzeko, sarbidea errazten ez duten inguruneak sortzeko eta gizarte gisa ausazko jokoei eragin ditzaketen arazoak minimizatzeko.




➔ AUSAZKO JOKOETAN ARITZEKO LOKALAK

Joko-ostalaritza-lokaletan ikuskapenak eta kontrola areagotzea. Lokalen lizentziak behin betikoak izan ez daitezzen edo, arau-hausteak pilatuz gero, deuseztatu ahal izan daitezzen lortzea.

Lokaletan edari alkoholikoak zerbitzu daitezzen debekatzea.

Incluir la red pública de salud dentro de los recursos disponibles para atención a la ludopatía en los carteles que deben instalarse en los locales de juego.



➔ OSTALARITZA

Sentsibilizazio-ekintzak sektorea gehiago inplika dadin lortzeko.

Ostalaritza-establezimenduetan makina txanponjaleak eta kirol-apustuak egiteko makinak debekatzea.



➔ IKASTETXEAK

Ikastetxeetan prebentzio-programak egitea.




➔ PUBLIZITATEA

Ausazko jokoen publizitatearen arautzean aurrera egiten jarraitzea eta mugak handitzea.

Jokoaren publizitatea eta "Hemen 1 milioi euro balioko sariak banatu ziren" gisako apeu publizitarioak debekatzea.

Loteriei eta ausazko beste joko batzuei buruzko iragarkiak deuseztatzea.



➔ KIROLA

Pilota-apustuak arautzea.

Futboleko eta beste kirol batzuetako klubetan kirol-apustuen babesletzak mugatzea.



➔ ADINGABEEN SARBIDEA ETA AUTODEBEKUA

Adingabeen eta autodebekua egin duten pertsonen sarbidea eraginkortasunez kontrolatzea.

Ausazko joko guztietan identifikazioa eskatzea (loteriaren eta ONCE kupoiaren erosketan barne).

Kredituetarako autodebekuen erregistroa sortzea.

ZURE TXANDA DA... ZER USTE DUZU ZUK?



➔ AUSAZKO JOKOETAKO DIRUA

➔ AUSAZKO JOKOEN DIRU-SARRERA GORDINAK ESPAINIAN* (jokatutako kopuruen eta sarien arteko aldea)

10.255 MILIOI EURO

* 2023 txostena. Jokoaren Enpresa Kontseilua.

30.119 MILIOI EURO

jokatuta Espainian (2022)

* 2023 txostena. Jokoaren Enpresa Kontseilua.



➔ ZERTAN GASTATU NAHI DUZU ZURE DIRUA?

euro/urtean 18 urtetik gorako lagun bakoitzeko



Familiarteko oporren erdia baino gehiago

Espainiako familien oporretarako aurreikusitako batez besteko gastua 1.174 eurokoa da.



Hilabete bateko hipoteka baino gehiago

Espainiako hilabeteko hipoteka-kuotaren batez bestekoa 400-500 euro ingurukoa da.



Unibertsitateko matrikularen erdia baino gehiago

Espainiako unibertsitate publikoetan ikasmaita bakoitzaren batez besteko prezioa 1.000 euro ingurukoa da.



Argiaren ordainagiriaren bi heren

Espainiako etxebizitzetan energian batez beste 900 euro gastatzen dira urtean.



Bi hilabeteko erosketaren saskia

Espainian herritar bakoitzak 300 euro inguru gastatzen ditu hilero janarian.



17 aldiz joatea zure futbol-taldea ikustera

Lehen Mailako sarreraren batez besteko prezioa 35,12 eurokoa izan zen aurreko denboraldian.




Kontzertu batera 15 aldiz joatea

Espainian neurri ertaineko kontzertu baten prezioa 40 eurokoa da.




1a bi urtez dendaz denda ibiltzea

Espainiako herritarrek urtean 330 euro gastatzen dituzte batez beste arropan.




Urtebetez plataforma digital guztietan izena emanda egotea

Plataforma guztien (oinarriko planak) kostu osoa 500 euro ingurukoa da (Netflix, HBO Max, Prime Video, Disney Plus, Movistar Lite, Atres Player).




DATUA

Espainian ausazko jokoetan egiten den gastuarekin 13.385.406 lagunen osasun publikoa ordain liteke (Osasun Ministerioaren arabera, 2022an osasun publikoan biztanle bakoitzaren kostua 2.042 euro / lagun izan zen).



"Une batetik aurrera gaixotasunak kontrolatzen ninduen. Hasieran, hobby bat zen, dibertsioa obsesio bilakatu zen arte"

Susana, jokalaria ohia



GEHIAGO JAKIN
NAHI AL DUZU?